

UDAL HERRI JABARIA ATZEMATEAGATIKO TASEN ZERGA ORDENANTZA ARAUPETZAILEA. 2022. URTEA

XEDAPEN OROKORRAK

1. Artikulua- Udal honek, Lurralde Historikoko Toki Ogasunen Foru Arau erregulatzaillearekin bat etorritz, Eranskineko Tarifetan eta Ordenantza honetan azaltzen diren araberako udal herri jabariko ondasunen erabilpen partikularra edo aprobetxamendu bereziagatiko tasak ezartzen eta eskatzen ditu, Ordenantza honek ezartzen duen eran, haiek honen barne daudelarik.

2. Artikulua- Ordenantza hau udal mugarte osoan ezartzen da.

ZERGA EGITATEA

3.-1. Artikulua- Zerga egitatearen udal herri jabariaren erabilpen partikularra edo aprobetxamendu berezian datza.

2.- Ez da tasarik ordaindu behar behar jabetza publikoko ondasunen emakida pribatiboak edo aprobetxamendu bereziak ez badakarkio onura ekonomikorik emakidadunari, edo, onura hori egon arren, erabilerak edo aprobetxamenduak baldintza edo kontraprestazio batzuk badakarzkio onuradunari, eta, horien ondorioz, onura hori deuseztatu edo garrantzirik gabekoa bihurtzen bada. Inguruabar horiek jaso egin behar dira erabilera pribatiboa edo aprobetxamendu berezia ematen duen baldintza-agirian edo tituluan.

SUBJEKTU PASIBOA

4. Artikulua.1- zergadun gisa, honako hauek subjektu pasiboak dira: batetik, pertsona fisiko eta juridikoak, eta, bestetik, Zergei buruzko Foru Arau Orokorrak aipatzen dituen erakundeak, hain zuzen ere, gozatu, erabili, emakidadunak izan edo tokiko herri jabaria norbanakoaren onurarako aprobetxatzen dutenak.

2.- Espalioen bidez ibilgailuak sartzeagatiko erabilpen partikularra edo aprobetxamendu bereziagatiko eta hauen eraikuntza, mantenimendua, aldarazpen edo kentzeagatiko tasetan zergadunaren ordezkotzat hartuko dira ibilgailuen sarrera hoiek sarbide diren finka eta lokalen jabeak, hauek dagozkien onuradunen gaineko kuotak jasanarazi ahal izango dutelarik.

3.- Estatua, Autonomi Elkargoak eta herri Erakundeak ez dituzte tasa hauek ordainduko: erabilpen partikularra edo zuzenean ustiatzen dituzten komunikazio

zerbitzu publikoei datzekien aprobetxamenduengatiko tasak, eta herritarren segurtanari edo nazioaren defentsari interesatzen zaizkien guztiek.

4.- Administrazio-emakiden kasuan, emakiden titularrak dira tasaren subjektu pasiboak, edo, hala badagokio, horien ordeztu subrogatzen direnak.

5. Artikulua- Tasak dagozkien lizentziak ematen zaienak ordaindu beharko dituzte, edo horren ezean aprobetxamenduen onuradun direnak.

SALBUESPEN ETA HOBARIAK

6. Artikulua- Salbuespenak edo beste zerga hobari batzuk ematea ezarpen-xedapen orokorretan ezartzen denari doitu zaio.

ZERGA OINARRIA

7. Artikulua- Toki herri jabariaren erabilpen partikularra edo aprobetxamendu berezia gauzatzen den unitate bakoitza da zerga oinarria, dagokion tarifak ezartzen duen eran.

KUOTA

8.- Artikulua. 1.- Zerga kuota tarifa bat ezartzetik ateratzen kopurua izango da, horretarako jarritako kopuru finkoa edo edo bi prozedurak ezartzearen ondorioz sortutako kopurua.

2.- Erabilpen partikularrak edo aprobetxamendu bereziak herri jabariaren suntsiketa edo hondaketa badakar, onuradunak ordaindu behar duen tasaren kalterik gabe, dagozkion berreraikitze edo konpontze gastuen kostu osoa ordaintzera eta zenbatekoa aurretiz uztera behartuta egongo da.

Kalteak konponezinak balira, Herri Erakundeari hondatutako ondasunen balioaren besteko kalteordaina edo suntsitutakoen zenbatekoa emango zaio.

Herri Erakundeak ezin izango du barkatu, ez osorik ez zati bat, atal honetan azaltzen den kalteordain edo itzulketarik

SORTZAPENA ETA ZERGALDIA

9. Artikulua. 1.- Toki herri jabariaren erabilpen partikularra edo aprobetxamendu bereziagatiko tasa erabilpen pribatua edo aprobetxamendu berezia hasten denean sortuko da, zerga oinarriaren arabera, aurretiz bere zenbateko osoa edo zati bat uztea eskatu daitekalarik, edo jarduketa edo espedientea hasten duen eskaera aurkezten denean, hau ez delirik egingo ez tramitatuko dagokion ordainketa burutu arte.

2.- Tasaren berezko izaerak honen aldikako sortzapena eskatzen duenean, hau zergaldi bakoitzaren lehenengo egunean izango da, erabilpen partikularra edo aprobetxamendu berezian hasiera edo uzte suposamenduetan izan ezik, orduan, zergaldia egoera horri doituko zaiolarik, kuotan dagokion lainarekin, eranskinean azaldutako eran. Hain zuzen ere, aldizkako sortzapena jadanik luzatutako edo baimendutako eta luzatutako erabilera eta aprobetxamenduetan egingo da, edo automatikoki berritutakoetan, B), D) 7 eta 12, E), F), H) eta J epigrafeak aipatzen dituztenak.

3.- Subjeku pasiboari egotzi ezin zaizkion arrazoiengatik herri jabariaren erabilpen edo aprobetxamendu eskubidea ez balitz emango edo ez balitz aurrera eramango dagokion kopurua itzuliko zitzaiokeen.

LIKIDAZIOA ETA SARRERA

10. Artikulua- Udalak kontzeptu bakoitzarik dagokion likidazioa egingo du, likidatutako diru kopurua dirutan sartuko delarik ordainarazpen bakoitzaren arau partikularren arabera, dagozkion tarifetan jasotakoak.

TASAREN KUDEAKETA

11. Artikulua- Ordennantza honetan araututako tasaren likidazioa, zergabilketa eta ikuskapenari dagokionez zergei buruzko Foru Arau orokorrean aurrikusitakoa ezarriko da, berdin gertatuko da zerga urratzeak kalifikatzean eta kasu bakoitzean dagozkion zehapenak zehaztean.

12. artikulua.- Ordenantza honetan araututako erabilera pribatiboagatiko edo aprobetxamendu bereziagatiko tasen kontzeptuan ordaindutako eskubideak independenteak dira lizentziak eta dagozkien baimenak emateagatik dituzten eskubideengandik.

13. artikulua.- Jadanik baimendutako erabilera pribatiboetan edo aprobetxamendu berezietan onuradunaren titulartasuna aldatzen bada, aurreko titularrak eta titular berriak Zerga Kudeaketa Sailari jakinarazi beharko diote aprobetxamenduan emandako baja eta alta. Horretarako, datu pertsonalak eta onuradun berriaren helbidea emango dituzte, baita beharrezkoak diren elementu guztiak ere, ordenantza honetan araututako tasak behar bezala kobratzeko. Era berean, subjektu pasiboak Zerga Kudeaketa Sailari aitortu beharko dio emandako edo egindako erabilera edo aprobetxamendua eten dela.

XEDAPEN IRAGANKORRA

2021eko ekitaldian zehar ezohiko %100eko hobaria aplikatuko da hemen araututako zerga-egitateen gain: B) Epigrafearen ("Taxi-geralekua) c) atalean eta E) Epigrafean ("Terrazak bide publikoan").

AZKEN XEDAPENA

Ordenantza hau eta Eranskina 1999ko irailaren 23an, 2000ko irailaren 29an, 2001eko irailaren 28an, 2003ko azaroaren 28an, 2004ko azaroaren 26an, 2005eko azaroaren 25ean, 2006ko abenduaren 22an, 2007ko apirilaren 27an, 2014ko ekainaren 24an, 2015eko abenduaren 23an, 2016ko apirilaren 27an, 2020 uztailaren 30an, 2020ko irailaren 29an, 2021eko otsailaren 25ean, 2021eko apirilaren 29an, 2021eko irailaren 30an, onetsi dira behin-betiko, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko dira eta 2022ko urtarrilaren 1ean indarrean sartuko dira eta indarrean jarraituko dute bere aldarazpena edo indargabetzea erabaki arte.

Hala ere, data horretan ez bada amaitu PPTan aurreikusitako zerbitzuaren egokitzapeneko, aldaketak ezartzeko eta kudeaketa berria martxan jartzeko fasea, zerga ordenantza honek aipatzen dituen aldaketak indarrean sartzeko data atzeratu egingo da zona bakoitzerako, zerbitzua abiatzeko dagokion aktak finkatzen duen datara arte.

ERANSKINA

A) EPIGRAFEA: HESIAK, ANDAMIOAK, ZURKAITZAK, ASNILAK ETA GARABIAK.

1.- Lan mota guztietan hesiak. - m2.ko edo fr. y hileko edo fr.	6,75 euro
2.- Esekitako andamioak, hesi gabe. - m2.ko edo fr. y hileko edo fr.	6,75 euro
3.- Hesiz kanpoko zurkaitz edo asnilak. - Bakoitzarengatik hileko edo fr.	6,75 euro
4.- Garabiak - m2.ko edo fr. y hamabostaldiko edo fr.	3,35 euro

TARIFAREN APLIKAZIO ARAUAK

a) Epigrafe honetan agertzen diren lanak geldituko balira hiru hilabete baino gehiagoko denboraldi batean, bidezkotu gabe, tarifa hau ezartzean sortzen diren zenbatekoak ehuneko ehuneko errenergua izango lukete, eta lanak

amaitu eta probetxamenduak jarraitzen badu, zenbatekoak ehuneko berrehunean errekaratuak izango dira.

b) 100eko 50ean beheratuko dira, hormen errebokatze lanak direla eta jarri behar diren hesi eta andamioei dagozkien tarifak, beti ere instalazio denbora ez bada hiru hilabetekoa baino gehiagokoa.

c) Tasa lizentzia ematen den momentuan likidatuko da behin behinean, zerbitzu teknikoek zenbatesten duten denboraren arabera, bere iraupenarena. Behin okupazio bukatuz gero guztizko likidazioa egingo da erabilitako benetako denbora oinarritzat hartuta.

B) EPIGRAFEA: IBILGAILUEN SARRERA FINKEN BARRURA ESPALOIETATIK ZEHAR ETA APARKALEKUA GORDETZEA.

1.- Ibilgailuen pasabidea. Ibilgailuen pasabidea metroko edo frakzioko eta urteko eta frakzioko 33,85 euro

2.- Aparkaleku gordetzea.

a) Gune iraunkorraren gordetzea, metro lineal edo frakzioa eta urtean- edo frakzioa 73,30 euro

b) Aldizkako gunea gordetzea metro lineal edo frakzioa eta eguneko edo frakzioa 9,95 euro

c) Taxi geltokia, urteko 72,20 euro

TARIFEN APLIKAZIO ARAUAK:

a) Espaloien pausuen zabalera duen jandako zintarriaren metro linealen arabera egingo da, jate hori esistitzen den kasuetan. Espaloiko zinterria ez balitzateke janda egongo, ezta bera kenduta ere, neurria izango da, bere osotasunean, kasu bakoitzeko orube edo lokalaren sarreran dagoen baoaren gauzako luzerarena.

b) Instalazio, kontserbazio, erreforma, pasabideen kentzea eta aparkalekuen gordetze gastuak, baita bere seinalizazioarenak ere, eskatzaileen kontu eta kargura izango dira.

c) Ibilgailuen pasabideen konzesionarioak bere seinalizazioa egitera behartuta daude homologatutako plaken instalazioen bidez, Udaletxean hartu behar izango dituztelarik, arinago kopuru hau ordainduz: 16,83 euro.

d) Ibilgailuen iraganbideari dagokionez, tasa behin eta berriz ez ordaintzeak (2 urte edo gehiago) emakida galtzea eragingo du. Horren ondorioz, subjektu pasiboak espaloien beherapena altxa beharko du, eta Udaleko Zerbitzu

Teknikoek marra egokia margotuko dute, bertan aparkatzea ahalbidetzeko xedez.

e) Ordenantza horretan erregulatu den aprobetxamendua lortu nahi duten norbanako edo erakundeek Udal honetan eskaera aurkeztu behar dute.

Emandako aprobetxamenduek aldakuntza edo bajaren bat izanez gero, dagokion aitorpena aurkeztu beharko dute. Betebehar hori betetzen ez dutenek ordainarazpena ordaindu beharko dute. Erroldako baja eta alden kasuan, kuota egutegiko hilabeteetan zainduko da, alta edo baja gertatu den hilabetea barne. Aitorpen horiek eragina izango dute egiten diren hurrengo urtean.

C) EPIGRAFEA: SALTOKIAK JAIETAN ETA HERRI JAIETAN EDO ALDIZKAKO OKUPATZEA

C-1) Saltokiak jaietan eta herri jaietan:

a.- Tabernak, kafetegiak edo antzekoak jaietan eta herriko jaietan, txoznak izan ezik.

-8 m ² tik, eguneko	60,40 euro
-8 m ² baino gehiago, eguneko	121,80 euro

b.- Kanpoko barrak edo antzeko instalazioak, tabernetan eta, oro har, ostalaritzako lokaletan, udalerriko auzoetako jaietan

Metro lineal eta egun bakoitzeko	20,15 euro
----------------------------------	------------

c.- Txurrotegi edo txokolategi eta masa frijituko mahaiak ferietan eta herri jaietan.

- Eguneko	15,10 euro
-----------	------------

d.- Saltxitxa, patata frijituak, izozkiak edo antzerakoak karrotxoak, ferietan eta herri jaietan

-Eguneko	8,05 euro
----------	-----------

e.- Opilak, karameluak, gozokiak, fruitu lehorrak, patata frijituak, bisuteria, jostailuak, liburuak, saltzeko mahaiak edo etxatoak ferietan eta herri jaietan..

-Eguneko edo frakzioko	10,10 euro
------------------------	------------

f.- Talo-txorizo eta bertako produktuentzako saltokiak ferietan eta herri jaietan.

-Eguneko edo frakzioko	30,20 euro
------------------------	------------

g.- Tombolak, errifak, salmenta azkarrak eta antzerakoak ferietan eta herri jaietan.

- Eguneko	40,30 euro
-----------	------------

- h.- Ikuskizunak, antzokiak eta zirkoak ferietan eta herri jaietan.
- Eguneko 100,65 euro
- i.- Zuri tiraketa, anilak edo bestelako jokuen etxatoak.
-Eguneko 30,20 euro
- j.- Ohe elastikoak, puzteko gazteluak eta antzerakoak, mugimendua duen edozein tresna mota izan ezik, ferietan eta herri jaietan.
-Eguneko 15,10 euro
- k.- Kolunpioak, hegazerako tresnak, zalditxoak jokuak, eta, orokorrean mugimendua duen edozein tresna mota, aurreko ataleetan agertzen diren izan ezik.
- Eguneko 30,20 euro
- l.- Umeen Noria, ferietan eta herri jaietan.
- Eguneko 30,20 euro
- m.- Auto txoke pistak ferietan eta herri jaietan.
- Eguneko 90,60 euro
- n.- Mugimenduko bestelako gailu handiak: helduen noria, trenbide gainean doazenak etab, herri-jaietan
-Eguneko 90,60 euro
- C-2) Aldizkako okupatzea. Saltokiak.**
- a.- Aldi baterako okupazioko txurrotegi edo txokolategi eta masa frijituko mahaiak.
- Eguneko edo frakzioko 18,15 euro
- b.- Opilak, karameluak, gozokiak, fruitu lehorrak, patata frijituak, bisuteria, jostailuak, liburuak, saltzeko mahaiak edo etxatoak.
- Eguneko edo frakzioko 31,60 euro
- c.- Lorak, izozkiak eta roskilak saltzeko mahaiak edo etxatoak.
- Eguneko edo frakzioko 7,85 euro
- d.- Gaztainak saltzeko etxatoak.
-Aldiko 111,95 euro
- e.- Zuri tiraketa, anilak edo bestelako jokuen etxatoak.
-Eguneko edo frakzioko 45,10 euro
- f.- Tombolak, errifak, salmenta azkarrak eta antzerakoak.

- Eguneko edo frakzioko	78,95 euro
g.- Kolunpioak, hegazerako tresnak, kalesatxoak, zalditxoek jokuak, bumperrak eta, orokorrean migimendua duen edozein tresna mota.	
- Eguneko edo frakzioko	162,25 euro
h.- Auto txoke pistak.	
- Eguneko edo frakzioko	381,10 euro
i.- Ikuskizunak, antzerkiak eta zirkuak, aldi baterako okupazioa.	
- Eguneko edo frakzioko	56,50 euro
j.- Piraguen, pedaflots eta beste batzuen alogera, udaroan	873,15 euro
k.- Bizikleten eta antzekoen alogera, urteko edo frakzioko	873,15 euro
l.- Aisialdirako aparatuak hondartzetan, udaroan	652,25 euro
m.- Irabazizko erakusketa eta mahai informatzaileak (industrial, merkatala edo komertziala) bide publikoan m ² ko edo frakzioko eta eguneko edo frakzioko 8,70 euro	
n.-Barkiloen salmenta aldiko	112,15 euro

TARIFEN APLIKAZIO ARAUAK

Epigrafe honetan jasotako emakidak, barraken eta/edo feriatako jolas-aparatuen instalazioari buruzkoak, enkante edo hitzarmen sistemaren bidez adjudikatu ahal izango dira eta kasu bakoitzean Udalak erabakitzen duen oinarri eta baldintzetan xedatutakoaren arabera egingo dira.

Bai enkante-bidezko esleipenetan eta baita baimena hitzarmen-bidez esleitzen den kasuetan ere, epigrafe honetan ezartzen diren zenbatekoak ez diren beste zenbatekoak ezarri ahal izango dira.

D) EPIGRAFEA BAKARREKO ERABILPENA EDO BIDE PUBLIKOETAKO ZORU, HEGALDURA ETA ZORUPEKO PROBETXAMENDU BEREZIA

- 1) Dirua sartuta salmenta automatikoko aparatuak m²/hileko 6,75 euro
- 2) Argazki makina automatikoak, aparatu bakoitzarengatik.m²/hileko 6,75 euro
- 3) Dirua sartutako aparatu bakoitzarengatik, zalditxoak, kotxeak eta beste batzuk/m²/hileko 6,75 euro

4) Zine rodajea eta argazki komertzial-publizitarioa. euro/egunek 30,00 euro

5) Obra-hondakin edo materialak edukitzeko kontenedoreak hamabostaldia kontenedoreko edo frakzioko 73,30 euro

6) Bide publikoan jarritako obra-hondakinen zakuak, hamabostaldi edo frakzioko 36,65 euro

7) Kioskoak, 78,95 euro/m²ko edo frakzioko

Santa Eugenia	329,05 euro
Pedro Bilbao euro/urteko	822,55 euro
Lope de Vega euro/urteko	329,05 euro
Mayor 5,euro/urteko	495,70 euro
Eskoletako Emparantza, euro/urteko	574,75 euro
Fadura euro/urteko	329,05 euro
Avda. Angel/Borobia euro/urteko	411,30 euro
Avda. Angel/La Venta euro/urteko	411,30 euro
Plaza Ganeta euro/urteko	245,60 euro
Serantes euro/urteko	411,30 euro
Lañomendi-Oicosa II	329,05 euro
Mayor 21 euro/urteko	329,05 euro

8) Zoruaren probetxamendua lokalen edo denden barrutik zuzenki bide publikora edozein gai motaren salmentarekin, bide publikoa negozioaren zatibat bezala hartuz, metro linealeko edo frakzioko eta hileko edo frakzioko 13,50 euro

9) Zorupearen probetxamenduagatik gasolina, olio edo antzeko instalazio edo aparatuekin, okupatzen duen zoru guztiagatik, depositoak sartuta, m²ko edo frakzioko, urteko edo fr 169,10 euro

10) Batetik besterako izozkien salmenta urteko edo frakzioko 2.929,45 euro

11) Markesina, Toldo, Letrero eta Eskaparateen okupazio iraunkorragatik m²ko edo frakzioko, urteko edo frakzioko 10,20 euro

12) Bankuen eta finantza-erakundeen kutxazainak, eskaintzen dituzten zerbitzuak edozein direlarik ere, fatxadarekiko lerroan. 1.082 euro urtero

E) EPIGRAFEA TERRAZAK BIDE PUBLIKOAN:

26 euroko oinarri-tarifa ezartzen da m² edo frakzio bakoitzeko. Kuotari, terraza motaren, denboraldi motaren eta, hala badagokio, terrazaren egoeraren arabera, koefiziente zuzentzaile hauek pilaturik aplikatuko zaizkio:

1) Terraza motaren arabera:

A motako terrazak: 1

B motako terrazak: 1,80

C motako terrazak: 2,00

2) Denboraldi motaren arabera:

Urteko denboraldia: 1

Urtaroko denboraldia: 0,75

Udako denboraldia: 0,55

3) "Espazio berezietan" kokatutako terrazak (dagokion hirigintza ordenantzan ezarritako definizioaren arabera), eta oinezkoentzako guneeetan, ibilgailuen zirkulazioa debekatuta edo mugatuta dagoen guneeetan eta 8 metro baino gehiagoko zabalera duten espaloietan kokatutako terrazak: 1,50

TARIFAK APLIKATZEKO ARAUAK

a) Ostalaritza eta merkataritza jarduerari lotutako erabilera publikoko espazioaren okupazioa arautzen duen ordenantzaren ondorioz, terrazak A, B eta C motetan sailkatu dira Ordenantza horrek denboraldi motak, funtzionamendua eta iraupena ere xedatzen ditu.

b) Baimenak automatikoki berrituko dira hurrengo urterako, baldintza berberetan eta baimendutako denboraldi bererako (urtekoa, urtarokoa edo udakoa). Horrela izango da okupazioa baimentzen duen ebazpenak kontrakoa adierazi ezean, edo tasa ez ordaintzeagatik baimena berritzen ez bada, edo interesdunak Zerga Kudeaketa Sailari aprobetxamenduan emandako baja jakinarazten badio. Aitorpen horrek ondorioak izango ditu, hori egin eta hurrengo urtetik aurrera.

c) Kuota hainbanatzea soilik kasu hauetan izango da bidezkoa:

1. Terraza jartzeko baimena adierazten den denboraldia hasita dagoenean ematen denean. Gauza bera gertatuko da denboraldiaren barruan terraza mota aldatzea ahalbidetzen bada. Horrela bada, aldaketaren aurreko hilabeteengatik hainbanatutako kuota kobratuko da, hau da, aurreko terraza motari dagokiona.

2. Terraza osagarri bat den lokalaren ostalaritza-jarduera eteten den kasuetan.

Hainbanaketa hilabete naturalak kontuan hartuz egingo da, terraza jartzeko edo aldatzeko baimena ematen den egunari dagokion hilabetea barne, edo jarduera bukatutzat ematen den data barne.

- d) Subjektu pasiboari egotzi ezin zaizkion udaleko obregatik edo obra partikularregatik, baimendutako terraza ezin bada jarri edo 15 egun baino gehiagoz kendu behar bada, hamabostaldika hainbanatutako zenbatekoa itzuliko da. Hamabostaldiak baimendutako jabari publikoa ez erabiltzeko arrazoia sortu eta biharamunetik zenbatuko dira. Horretarako, tasa ordaindu behar duenak udalari jakinaraziko dio, idatziz eta berehala, jabari publikoaren erabilera eragozten duen arrazoia. Horrela, udal zerbitzuek egoera hori egiaztatuko dute, baita hori erabiltzen ez den denboraldia ere. Behin baimendutako okupazio epea bukatuta (urtekoa, urtarokoa edo udakoa), administrazioak dagokion itzulketa izapidetuko du, espedientean dagoen informazioaren arabera, bidezkoa bada.

F) EPIGRAFEA MERKATARITZA-ESTABLEZIMENDUEN LUZAPENAK

Merkataritza-establezimenduak bide publikoan urtebetez luzatzeagatik, m² edo frakzio edo urte edo zati bakoitzeko: 65,00 euro.

TARIFA APLIKATZEKO ARAUAK

- a) Baimenak automatikoki berrituko dira hurrengo urterako, baldintza berberetan. Horrela izango da okupazioa baimentzen duen ebazpenak kontrakoa adierazi ezean, edo tasa ez ordaintzeagatik baimena berritu ezean, edo interesdunak Zerga Kudeaketa Sailari aprobetxamenduan emandako baja jakinarazi ezean. Aitorpen horrek ondorioak izango ditu, hori egin eta hurrengo urtetik aurrera.
- b) Kuota hainbanatzea soilik kasu hauetan izango da bidezkoa:

1. Okupazio berri bat denean, terraza jartzeko baimena adierazten den denboraldia hasita dagoenean ematen denean.
2. Luzapena osagarri bat den establezimenduaren merkataritza-jarduera eteten den kasuetan.

Hainbanaketa hilabete naturalak kontuan hartuz egingo da, okupaziorako baimena ematen den datari dagokion hilabetea barne, edo jarduera bukatutzat ematen den data barne.

- c) Subjektu pasiboari egotzi ezin zaizkion udaleko obregatik edo obra partikularregatik, baimendutako terraza ezin bada jarri edo 15 egun baino gehiagoz kendu behar bada, hamabostaldika hainbanatutako zenbatekoa itzuliko da. Hamabostaldiak baimendutako jabari publikoa ez erabiltzeko arrazoia sortu eta biharamunetik zenbatuko dira. Horretarako, tasa ordaindu behar duenak udalari jakinaraziko dio, idatziz eta berehala, jabari publikoaren erabilera eragozten duen arrazoia. Horrela, udal zerbitzuek egoera hori egiaztatuko dute, baita hori erabiltzen ez den denboraldia ere. Behin baimendutako okupazio epea bukatuta, administrazioak dagokion itzulketa izapidetuko du, espedientean dagoen informazioaren arabera, bidezkoa bada.

G) EPIGRAFEA BAKARREKO ERABILPENA EDO UDAL BIDE PUBLIKOETAKO ZORU, HEGALDURA ETA ZORUPEKO PROBETXAMENDU BEREZIA, HORNIDURA ZERBITZUEN ENPRESA UZTIATZAILA ALDE.

Hornidura zerbitzuak ustiatzen dituzten enpresek udalaren bide publikoetako lurzoruaren, lurpearen edo hegalkinaren erabilera pribatibo edo aprobetxamendu bereziarengatik tasak ondoko enpresetan izango eragina:

- a) Energia elektrikoa, ura edo gasa hornitzeaz arduratzen diren enpresak.
- b) Udalaren bide publikoetako lurzoruaren, lurpearen edo hegalkinaren erabilera pribatiboarekin edo aprobetxamendu bereziarekin instalaturiko telekomunikazio sare publikoak jendeak guztiz edo zati batean erabiltzeko zerbitzuak ematen dituzten enpresak, sare edo instalazioen titularitatea norena den begiratu gabe.
- c) Gainerako hornidura-enpresak, zerbitzuak emateko udalaren lurzorua, hegalkina edo lurpea okupatzen duten hodi, kable eta gainerako instalazioak erabiltzen dituztenak.
- d) Era berean, zerbitzuak ustiatzen dituzten enpresen artean zerbitzu horiek banatzeko eta merkaturatzeko enpresak ere sartuko dira.

Tributu-kuota urtebetean udal barrutian lortzen duten fakturaziotik heldu diren diru-sarrerak gordinen % 1,5 izango da.

APLIKATZEKO ARAUAK

- 1.- Tasa likidatzeko zerga oinarria hornidura-zerbitzuak ustiatzen dituzten enpresek urtebetean udal barrutian lortzen duten fakturaziotik heldu diren diru-sarrera gordinen arabera ezarriko da.
- 2.- Diru-sarrera gordinak entitateari egotz dakizkiokeenak dira, enpresak udal barrutian emaniko zerbitzuengatik lortu dituenak.
- 3.- Ez dira diru-sarrera gordintzat hartuko ez emandako zerbitzuak zergapetzen dituzten zeharkako zergak, ez eta hornidura-zerbitzuak ustiatzen dituen enpresaren diru-sarrera propioa osatzen ez dituzten hirugarrenen kargura kobratutako partidak edo kopuruak ere.
- 4.- Hornidurak emateko besteren sareak erabiltzen dituzten enpresek fakturazioko beren diru-sarrera gordinetatik beste enpresa batzuei beren sareetara konektatzeko ordaindutako kopuruak kenduko dituzte. SAre horien titularrak diruen enpresek kontzeptu hori dela eta jasotako kopuruak fakturazioko diru-sarrera gordinen artean kontatu beharko dituzte.
- 5.- Zergen Foru Arau Orokorrean eta Bizkaiko Lurralde Historikoko Ikuskaritzako Arautegiko 37. artikuluan ezarritakoaren arabera, sareen titularrak diren enpresek udalak sareetarako konektatzeko sarrera gisa diru-sarrerarik kobratzen dituzten enpresei buruz eskatzen dien informazioa eman beharko dute.

Tasa hori sortuko da aprobetxamendu berezia hasten denean; hortik aurrera, urtero, urtarrilaren 1ean.

Subjektu pasiboari ezin egotz dakizkiokeen arrazoiengatik jabari publikoaren aprobetxamendua garatzen ez denean, bidezkoa izango da kasuan kasuko zenbatekoa itzultzea.

Hornidura-zerbitzuak ustiatzen dituzten enpresek, hiruhileko bakoitzeko lehen hamabost egunetan, udaletxean aurreko hiruhilekoan lorturiko diru-sarrera gordinak jasoko dituen deklarazioa aurkeztu beharko dute. Deklarazio horrekin batera, udal barrutian eginiko fakturazioa kreditatzen duten dokumentuak aurkeztu beharko dituzte, bai eta kasuan kasu udal administrazioak eskatzen duena ere.

-Udal administrazioak kasuan kasuko hiruhilekoko likidazioak egingo ditu; likidazio horiek behin-behinekoak izango dira, harik eta behar diren egiaztapenak egiten diren arte. Behin egiaztapen horiek egin direnean, behin betiko likidazioa egingo da, eta likidazio hori interesdunari jakinaraziko zaio. Borondatezko epea iraganik, zorra premiamenduzko bidetik exijituko da.

-Betiere, behin-behineko likidazioak behin betikotzat joko dira aurreko artikulua aipatzen duen deklarazioa aurkezten den egunetik hiru urte iragan direnean.

-Tributu arloko arau-hausteei eta haiei buruzko kalifikazioei dagokien guztian, bai eta ezar daitezkeen zehapenei dagokien guztian ere, Zergen Foru Arau Orokorrean eta Ordenantza Fiskal Orokorrean ezarritakoa aplikatuko da.

H) EPIGRAFEA TRAKZIO MEKANIKOKO IBILGAILUEN ESTAZIONAMENDUA UDAL BIDE PUBLIKOETAN.

APARKATZEKO TARIFA OROKORRA

- 1) 15 minuturaino aparkatzea 0,00 Euro (baina matrikula bertan behera utzi behar da).
- 2) 15 minututik aurrera eta 30 minuturaino barne 0,30 euro
- 3) 30 minututik eta 60 arte, 0,015 euro/minutu, 0,05 eur.ko multiploetan ordu bat izanik 0,75 euro
- 4) 60 minututik aurrera eta 90 arte, 0,02333 euro/minutua, 0,05 euroko multiploetan ordu t'erdia izanik 1,45 euro
- 5) 90 minututik aurrera eta 270 arte, 0,030 euro/minutua, 0,05 euroko multiploetan, lau ordu t'erdia izanik 6,85 euro.

Egoiliarrentzako aparkatzeko baimena, ibilgailu bakoitzeko, urteko kuota 50,00 euro.

Egoiliarrentzako aparkaleku-baimena aldarazteagatik, ibilgailua aldatzeagatik eta beste arrazoi batzuegatik: 4,70 euro.

5. EREMURAKO APARKATZEKO ORDU-TXARTELAREN TARIFA ESPEZIFIKOA (Ereagako hondartza)

- 1) Aparkatzeko 0 minututik 16 minutura (biak barne): 0,20 euro.
- 2) 16. minututik aurrera eta 600. minutura arte, biak barne, 0,0125 euro tarte horretako minutu bakoitzeko (0,05 euroko multiploetan); emaitza: eguneko 7,50 euro da gehienez (ordubete 0,75 euro).

5. eremuko egoiliarrentzako aparkatzeko baimena ibilgailu bakoitzeko; urteko kuota: 27,99 euro.

5. eremuko egoiliarrak aparkatzeko baimenaren aldarazpena dela-eta, kontzeptu horretarako ezarritik dagoen tarifa orokorra aplikatuko da.

TARIFEN APLIKAZIO ARAUAK

a)Tasa hau ordaintzera behartuak daude:

1.- Behartu printzipalen kalitatean:

- Ibilgailuen gidariak ondoren aurrakusten den kasuan izan ezik.

- Ibilgailuen jabeak, prezioak aldizka sortzen direnean, egutegiko urtearekin bat etorritik.

2.- Behartu solidario bezala, ibilgailuaren jabea. Ondore hauetarako eta arinagokoaren 1goan aurrakusitakoarekin, ibilgailuaren jabetzat joko da, Zirkulazio Baimenean titular bezala agertzen dena.

b) Kudeaketa, Zergaldia eta Sortzapena

1.- TAOko Erroldan alta ematen den kasuetan, tasa hori txartelak eta aparkaleku baimenak erabili baino lehen aurretiazko izaerarekin kobratuko dira, autolikidazio bidez.

2.- Gainerako kasuetan, borondatezko epean, sarrera sartzeko epea Getxoko Udaleko Kudeaketa, Ikuskapen eta Diru-Bilketaren Ordenantza Fiskalean garatutako egutegi fiskalean ezarriko da urtero.

3.- Tarifa orokorra aplikatu behar zaien egoiliarrentzako aparkatzeko baimenarekin lotutako kasuetan, zergaldia bat dator urte naturalarekin, eta sortzapena urtarilaren 1ean gertatuko da. 5. zonako tarifa aplikatu behar zaien egoiliarrentzako aparkatzeko baimenarekin lotutako kasuetan, zergaldiak barne hartzen ditu zerbitzua arautzeko ordenantzak kasu bakoitzean uda sasoi gisa zehazten dituen hilabeteak, eta sortzapena aldi horretako lehenengo egunean gertatuko da.

4.-Egoiliar Txartelaren altak edo baxak eman ezker, kuoten kobratzea edo itzultzea , egutegiko hilabetekoetan zatikatuko da.

c) PREMIAMENDU PROZEDURA

Tasa hauengatik eta bere konpetentzietan ezarritako zehapenengatik sortutako zorrak, aparkaleku eta trafiko ordenazioari eta erregulazioari buruzko Udal Arauaren arabera, premiamendu prozeduraren bitartez eskatu ahal izango dira.

I) EPIGRAFEA ZANGAK ETA MEA-AZTERGUNEAK

Zangak eta Mea-azterguneak irekitzeagatik m²/hileko 34,95 euro.

J) EPIGRAFEA: JABARI PUBLIKOKO EMAKIDAK

Administrazio Publikoen Ondareari buruzko azaroaren 3ko 33/2003 Legearen eta Tokiko Erakundeen Ondasunen Erregelamenduaren arabera ematen diren jabari publikoko emakidei dagokien tasaren zenbatekoa zehazteko honako arau hauek kontuan hartuko dira:

1. Lizitazio publikoko prozeduretan, emakidaren edo esleipenaren xede den proposamenaren balio ekonomikoak zehaztuko du tasaren zenbatekoa. Gainerako kasuetan, artikulua honetan jasotako arauak aplikatuz kalkulatu da tasaren zenbatekoa.
2. Jabari publikoko ondasunen erabilera pribatiboa egiten den kasuetan, urteko tasa honela kalkulatu da: arau horietako 3a) edo 3b) apartatuetan aurreikusitako karga-tasa aplikatuz, kasuaren arabera, erabilitako ondasunen merkatu-balioari. Kalkulu hori emakida emateko unean egingo da eta artikulua honetan deskribatutako arauen arabera eguneratuko.

Emakida ematerakoan erabilitako ondasunen merkatu-balioa honela kalkulatu da:

- a) Emakidaren xede den ondasun higiezinak katastroan sartuta ez badago, emakida emateko unean erabilitako ondasunen merkatu-balioa lortzeko, artikulua honetan arautzen den emakida eman den urteen araberrako haztapan-koefizientea aplikatuko zaio Ondarearen Arloak horretarako egindako balorazio-txostenean lortutako balioari.
- b) Emakidaren xede den ondasun higiezinak katastroan sartuta badago, emakida emateko unean erabilitako ondasunen merkatu-balioa lortzeko, honako hauek aplikatuko zaizkio katastroan jasotako ondasunari esleitu beharreko gutxieneko balioari: alde batetik, esleitu beharreko gutxieneko balioaren eta merkatuko balioaren artean une horretan dagoen erlazio-koefizientea eta, bestetik, artikulua honetan arautzen den emakida eman den urteen araberrako haztapan-koefizientea.
- c) Ondorio horietarako, arestian aipatutako emakida eman den urteen araberrako haztapan-koefizientea zehazteko, kontuan hartuko dira

Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergari buruzkoa martxoaren 24ko 1/2011 Foru Arauan jasotako aldi baterako gozamina baloratzeko arauak, bereziki:

- Pertsona juridiko baten alde hogeita hamar urte baino gehiagorako edo zehaztu gabeko epe baterako eraturako gozamenak badira, jabetza osoko eskualdaketeekin parekatuko dira, eta % 100eko haztapen-koefizientea aplikatuko da.
 - Pertsona juridiko baten alde gehienez ere hogeita hamar urterako eraturako gozamenak badira, % 2ko haztapen-koefizientea aplikatuko da urtebeteko aldi bakoitzeko, gehienez ere % 70ekoa.
- d) Emakida indarrean dagoen urte bakoitzean, aurreko apartatuan deskribatutako arauen arabera lortutako merkatu-balioa eguneratu egingo da, Lehiakortasuna Bermatzeko Indizearen urtetik urterako aldakuntzaren proportzio berean, zeina urte bakoitzeko urtarilaren 1ean argitaratzen den (Espainiako ekonomiaren desindexazioari buruzko martxoaren 30eko 2/2015 Legearen arabera).
3. Urteko tasa kalkulatzeko, aurreko arauen arabera kalkulaturako oinarriari honako karga-tasa hauek aplikatuko zaizkio:
- a. Jabari publikoko ondasunen erabilera pribatiboa egiten denean erabilera edo zerbitzu publikoko jarduerak egiteko:.....% 1,5
 - b. Jabari publikoko ondasunen erabilera pribatiboa egiten denean beste jarduera batzuk egiteko:..... % 5,0
4. Honako kasu hauetan bakarrik hainbanatu ahalko da kuota: emakida ematen den lehen urtean, tasaren zenbatekoa urte horretan zehar indarrean dauden hilabete naturalekiko proportzionala izango da, eta aurreko artikuluen arabera lortutako zenbatekoari dagokion hainbanaketa aplikatuko da. Halaber, hainbanatzeko irizpide hori emakida indarrean den azken urtean aplikatuko da.